

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

2017ko maiatzaren 18an, 18:30etik 20:00etara,
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan



Eskola Agenda 21 eta Agenda 21eko Foroak urtero elkarrekin egiten duten bilera, aurtengo ikastaroan aukeratu den gaiaren bueltan: klima-aldaketa.

- Ikasleek egin duten lanaren emaitza nagusiak eta konpromisoak.
- Legazpiarren artean nola nabarmendu eta zabaldu gehiago Eskola Agenda 21a?

1. Urtero legez, Agenda 21ak elkartu egiten gaitu

Eta leku berean elkartu ditu Eskola Agenda 21 eta Legazpiko Agenda 21eko Foroa. Horrela, Legazpiko iraunkortasuna lortzen laguntzeko dugun helburua partekatuz, elkarrekin honakoa egin dugu gaurkoan:

- Aurtengo ikasturtean ikastetxeetan klima-aldaketaren zein alderdi landu dituzten jakin dugu eta proposatutako konpromisoak jaso ditugu –beraiek hartutakoak eta Udalari proposatutakoak-. Maite, Gorka, Jone eta Jon, Batxilergoko ikasleak dira eta dena ezin hobea azaldu dute Haztegi ikastolaren, Olazabal institutuaren eta Domingo Agirre eskolaren izenean. Eskerrik asko laukote!
- Legazpiarren artean Eskola Agenda 21a nola nabarmendu eta zabaldu daitekeen gehiago landu eta aztertu dugu.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2. Eskerrik asko parte hartu duen taldeari

Topaketa honetara etortzeagatik eta bakoitza bere ikuspegitik, adinetik, begiradatik eta konpromisoetatik ekarpenak egiteagatik. **16 pertsona elkartu dira Tokiko Agenda 21aren eta Eskola Agenda 21aren artean zubiak eraikitzeko :**

Bizilagunak:

Gurutze Laboa (Legazpiko Ingurugela) – Rosa Makibar – M^a Cruz Lizarazu – Floren Gutierrez – Pilar Makibar – Juan Karlos Agirre.

Eskola Agenda 21eko irakasleak eta ikasleak:

Maite Odriozola (Haztegi ikastolako irakaslea) – Amaia Pildain (Olazabal institutuko irakaslea) – Maite Guridi eta Gorka Blazquez (Haztegi ikastolako ikasleak) – Jone Narbaiza eta Jon Goiburu (Olazabal institutuko ikasleak) - Maddi Tolosa (Domingo Agirre eskolako irakaslea).

Udal arduradun eta teknikariak:

Koldobike Olabide (alkatea) – Eric Galvez (zinegotzia) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen saileko teknikaria).

Laguntzaile teknikoak:

Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio lanetan.

3. Hasi baino lehen, berriak

Hasteko, Inma Hernandez teknikariak 4 berri partekatu ditu taldearekin:

- Udalak gairak egin du urteroko **Ecoskan** ziurtagiriaren ikuskapena.
- Maiatzaren 12an **Bidezko Merkataritzaren Eguna** ospatu zen, Legazpiko errealitatera egokitutako logo berriarekin.
- Martxan da "**Fokatu Urola Garaia**" urteroko argazki lehiaketa; oraingoan klima-aldaketa izango da aukeratutako gaia.
- Ekainaren 16an, ingurumenaren nazioarteko egunean, **Urolamet** ekimena gauzatuko da. Klima-aldaketaren gainean sentsibilizatzea helburu duen ekintza da.

Eta kontu guzti horien berri eman ondoren, gaurko gai nagusiari heldu diogu.

4. Klima-aldaketaren gainean ikastetxeek egin duten lanarekin jarraitzen dugu

“Gure herrian klima-aldaketa areagotu ez dadin har ditzakegun neurriak aztertu ditugu.”

Legazpiko ikastetxeak



Legazpin klima-aldaketari dagokionez...

Aztertutako alderdia	Ondorioak	Ikasleen konpromisoak
Lehen Hezkuntza: 1. eta 2. maila		
Zein garraio-mota erabiltzen dute herritarrek eta nola goaz gu eskolara?	<ul style="list-style-type: none"> – Helduak autoz joaten dira lanera. – Gu oinez goaz eskolara. – Kutsadura murrizteko ekintzak gauzatu dira: junetorri, igogailua, bidegorria, kaleak oinezkoentzako egokitu... 	<ul style="list-style-type: none"> – Eskolara oinez, patinetean edo bizikletan joango gara eta beste herrietara joateko trena edo autobusa erabiliko dugu. – Gure gurasoei garraio publikoa erabil dezatela esango diegu.
Lehen hezkuntza: 3. eta 4. maila		
Klimaren eragina herriko landare eta animalietan.	<ul style="list-style-type: none"> – Landareak bizi diren lekuko klimara daude egokituta eta hori aldatzen doa gizakiaren esku hartzeagatik eta klima-aldaketaren ondorioz. – Animaliak horren ondorioak jasaten ari dira. 	<ul style="list-style-type: none"> – Landareak errespetatuko ditugu eta zainduko ditugu.

Aztertutako alderdia	Ondorioak	Ikasleen konpromisoak
Lehen hezkuntza: 5. eta 6. maila		
Herrian aieratzen dugun berotegi-efektuko gasen kopurua kalkulatu eta non kokatzen garen beste eskualde eta lurraldeekiko.	<ul style="list-style-type: none"> – EAE= 8,9 t/biztanleko – LEGAZPI= 7,2 t/biztanleko – Lurraldea zenbat eta garatuago orduan eta energia kontsumo handiagoa eta, ondorioz, berotegi-efektuko gas gehiago aieratzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> – Energia behar beharrezkoa denean bakarrik erabiliko dugu. – Behar ez dugunean argia, telebista, ordenagailua, itzaliko ditugu.
DBH eta Batxilergoa		
Nola hobetu gura kontsumo-ohiturak eta klima-aldaketara egokitzeko aukerak?	<ul style="list-style-type: none"> – Kontsumo-gakoak berotegi-efektua areagotu ez dadin. – Eta klima-aldaketara egokitzeko aukerak. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ehunezko poltsak erabiliko ditugu erosketak egiteko.
Energia iturri desberdinen abantailak eta desabantailak aztertu ditugu baita gai horretan gure herrian eman diren aurrerapenak ere.	<ul style="list-style-type: none"> – Energia berriztagarriak bultzatu behar dira eta ez fosilena edo nuklearra. 	<ul style="list-style-type: none"> – Legazpirako neurri eraginkorrak proposatu: plaka fotovoltaikoak eta termikoak, ingurumen-kudeaketarako Ekoscan sistema, kode teknikoak eraikin berrietarako. – Plastikoan bilduta ez dauden jakiak erosiko ditugu edo soltean hobe.
Hondakinak kudeatzeko aukerak eta gure herriaren eta mankomunitatearen egoera gai horretan.	<ul style="list-style-type: none"> – Gure herrian ia % 80 birziklatzen da. – Jendearen kontzientziatio-maila hobetu behar da. – Sarritan, neurririk gabe kontsumitzen dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ahalegina egingo dugu batez ere bertako eta gertuko produktuak kontsumitzeke.

Bestalde, ikasleek hartu dituzten konpromisoez gain, ikastetxeek ondorengo proposamenak luzatu dizkio Legazpiko Udalari:

Legazpiko Udalari ikastetxeek egiten dizkioten proposamenak:

- Udalerriko leku gehiagoetan Laubide auzoan CO₂ xurgatzen duen zorua bezalakoa jartzea; eta hirigunean berdegune gehiago sortzea.
- Energiari buruz hitz egiteko hitzaldi bat antolatzea eta birziklapena hobetzeko eta hondakinen sorrera murrizteko kontzientziatze kanpainak egitea.
- Garraio publikoaren ordutegia zabaltzea eta irisgarritasuna hobetzea.

Azken finean: lan bikaina Legazpiko ikasleek egin dutena; Foroak aintzat hartzen du lan hori eta bukatzen ari den Legazpi Klima izeneko ekintza-planean txertatu nahi izan du Udalak.

“Lan handia egin duzue eta urtetik urtera egiten duzuen ahalegina zoriondu nahi dugu”
Agenda 21eko Foroa



Segidan, lan horren gainean benetan interesgarriak diren iritziak eta ñabardurak partekatu ditugu:

“ ”



- Eskola Agenda 21 pertsona askoren parte hartzeari esker ematen du bere fruitua, eta alde horretatik esker ona kolektiboa da: irakasleena ikasleenganako erakutsi duten heldutasun, inplikazio eta ezagutzagatik, ikasleena irakasleenganako eman dieten laguntzagatik, ikastetxeena gurasoenganako programan parte hartzeagatik,....
Horrela, gurasoen proposamenari esker Domingo Agirre eskolak GLACKMA proiektuarekin (<http://www.glackma.org>) izan duen harremana azpimarratu nahi dugu.
- Energiari buruz hitzaldi bat antolatzeko ikasleek egin duten proposamenaren aurrean, hitzaldia herritar guztientzako irekia izatea eta, batik bat, gazteentzat ere erakargarria izatea proposatu da.
Adibide gisa eta aurtengo esperientzia ederra izan dela ikusita, BC3 (Basque Centre for Climate Change) zentroak hitzaldi espezifikoak eskaintzen ditu ikastetxeetan ingelesez. Haztegin Batxilergoko ikasleentzako prestatu zuten hitzaldia eta oso ondo baloratu zuten.

- Beste aukera bat ere izan daiteke honako hau: ikasleek egin duten lana eta klima-aldaketaren gainean duten ezagutza herritarrei beraiek azaltzea.
- Edozelan ere, oso inportantea da Legazpik ildo hori jarrai dezala, iruditzen ez bazaigu ere emaitzak egunetik egunera ikusten direlako. Horren adibide dira, besteak beste, Urbiako larreak eta egungo egoera, erleen eta beste espezieen bilakaera, landaredia,

5. Eta urtetik urtera errepikatzen den galdera: zer egin dezakegu Eskola Agenda 21 eta ematen dituen emaitzak balioesteko eta zabaltzeko?

Zeintzuk dira pisuzko arrazoiak Eskola Agenda 21 hobeto eta gehiago komunikatzea inportantea izan dadin?

Gero eta gehiago

dira arrazoiak

“ ”
• • •

- Sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta haurren, gazteen eta beraien familien artean ezagutza zabaltzeko ezinbestekoa da Eskola Agenda 21aren programaren ekarpena. Horrezaz gain, zuzenean egiten da lan haur txikiekin.
- Ikastetxeek egiten duten lana herriarentzako da: azken finean ikasleek udalerriko datuak erabiltzen dituzte, bertako informazioa, konpromisoak hartzen dituzte eta Udalari ezartzen dizkiote konpromisoak... Ekarpen handia da Legazpirako.
- Eta urtero Eskola Agenda 21ak udal korporazioari aurkezten dizkion emaitzen laburpen bat zabaltzen bada ere, ez da legazpiar orotara iristen. Zerbait gehiago egin behar da.

Horren haritik, Legazpiko Eskola Agenda 21 balioesteko eta zabaltzeko helburuarekin, zer gehiago proposa dezakegu...

- Epe laburrean? –datorren astean korporazioari Urolamet aurkeztuko zaiola aprobetxatuz...-?
- Datorren ikasturteari begira?
- -

Legazpiko Ingurugelako Gurutzek, beste herri batzuetan egiten diren hainbat gauzen berri eman die foroko kideei. Eta horiekin Legazpirako hainbat proposamen zehatz mahai gaineratu ditugu.

Epe laburrean

- Aurtengo emaitzen edukia erabil daitekeen aztertu, kalean begien bistakoa izan dadin honakoekin:
 - Bideo bat, sare sozialetan zabaltzeko modukoa eta gazteentzako erakargarria izango dena: zerbait motza, zirrara eragingo duena eta klima-aldaketarekin zerikusia duten eguneroko alderdiekin lotuta egongo dena.
 - Panelak leku esanguratsuenetan, autobus geralekuetan... Edozelan ere, edukia egokitu egin beharko da, erraza, ulergarria eta erakargarria izan dadin.
- Ekainaren 16rako aurreikusi den Urolamet ekimenaren aurrean, aurreikus daiteke ikastetxeetako ikasle batzuen parte hartze aktiboa bertan txertatzea?

Datorren ikasturteari begira

- Eskola Agenda 21eko prozesuaren eta emaitzen berri eman ez erakusketa bat antolatzea; horrezaz gain erakusketan ikastetxeek egin duten lana erakutsi daiteke. Erakusketa ekainaren 5ean egin daiteke, ingurumenaren nazioarteko egunean. Ikastetxeek materiala sor dezakete ikasturtean zehar eta material horrekin erakusketa osatu. Formatu hori erabiliz eta erakusketa kultur etxean jartzea familientzako eta legazpiarrentzako erakargarria izan daitekeela pentsatzen dugu.
- Erakusketa jartzeaz gain, hitzaldi-solasaldi interesgarri bat antola daiteke baina formatu erakargarria erabiliz eta kalean elementu osagarriak jarriz –panelak leku esanguratsuetan eta pasabideetan...-.
- Agenda 21aren eta Eskola Agenda 21aren arteko urteko foro hau erakusketan bertan egitea.
- Legazpin klima-aldaketari buruzko inkesta formal bat egitea, legazpiarrek klima-aldaketarekiko duten kontzientzia-maila agerian utziko duena.

¡Ezin hobe! Hartu ditugu ideia batzuk! Pentsatu beharreko proposamenak eta, seguru asko, guztion laguntzarekin gauzatuko direnak.

6. Tailerreko irudi-laburpenarekin bukatzen dugu

Batzuetan irudi batek mila hitz baino gehiago esaten du....



Eskerrik asko guztioi! Plazer bat izan da!